

LAUTADA EUSKARAZ GOGO BIZIZ

Arabako Lautadan bi hiri nagusi aurkitzen ditugu: Gasteiz mendebaldean eta Agurain ekialdean. Biak kokatzen dira muino banatan. Hiri gutuna hartu zuten garai hartatik hona, Erdi Arotik XXI. mendera arte aldaketa nabari ikusi dute bi hiri hauek beren talaia bakoitzetik. Aldaketa berez gizarteak ikusi du gizaldiz gizaldi, baina gizakien bizitokitatik begiratuta beti eta horrela izanez, hiribildu horiek historian zehar beren biztanle edo bisitari izandako guztien aztarnak alde edo moldez gorde dituzte.

Lautadako paisaia mendez mende aldatuz joan da; bai ingurumenarena eta baita gizon-emakumeena ere. Ingurumenari bagagozkio eta ia lehengo mendean traktoreak agertu arte, Lautadako soro edo soloak tamaina eta itxuraren aldetik ez ziren gehiegi aldatu mende luzetan, lursaileen edo partzelen kontzentrazioa XX. mendean erdialdean etorri arte. Gauzak horrela, XII. mendeko Antso VI.ak, XIII.eko Alfontso X.ak, XIV.eko Pedro I.ak eta honen aliatua izan zen Ingalaterrako Printze Beltzak Erdi Aroan ikusi zuten paisaia eta XIX. mendean Bonapartetarrek edo Bourbondarrek ikusi zutena ez zen oso diferentea izan. Mendietan ere holako zerbait gertatu zen, suteek gorritutako mendi malda batzuk alde batera utzita, landaketa berriak orain 90en bat urte hasi ziren arte. Industrializazioak eta horrekin batera populazioaren hazkundeak ere azken hamarkadetan sakon aldatu dute ingurumena.

Giza paisaia aldiz lehenago hasi zen aldatzen, Lautadako biztanleek erabiltzen zuten euskara gaztelaniaren zabaltzearen aurrean ahulduz joan zelako. Baina aldaketa hori, zorionez, ez zen bat-batekoa izan, asti astiro gertatutakoa baizik; horretan euskarak erresilientzia eta malgutasuna bazituela agerian utzi zuen. Gaztelaniaren uholdea hego-mendebaletik etorri zitzaigun eta horregatik bi mende inguru kostatuko zaio Gasteiz aldetik ekialde honetara iritsi arte. Hala ere, Lautada osoko toponimian begirunez gorde izan dira euskal izenak gehienetan, arbasoek toki izenetan jarri zuten jantzi euskalduna arretaz mantendu zuten gerokoek.

Eta gaur Agurainen gaudenez gero, mantentze horren lekukotasun ugariaren artetik adibide iraunkor batzuk aipatuko ditut: aurrena, Harri Arokoa, Aguraingo hegoaldean lau herrik osatzen duten Ergoienan, Arrizabalagako trikuarri edo dolmena, Sorginetxe izen magikoarekin ere ezagutzen duguna eta jai onetako bideoa egiteko egoki aukeratu duzuen; hurrengoak, lehen bizileku izandakoak,

gero hustuta gelditu eta hala ere toki izenetan iraun dutenak: Abitona, Albizu edo Albizua, Gazeogoiena, Iratza edo Iratzaba, Mostreion edo Mostrakon, Paternina edo Paterniana, Remariarana, Sallurtegi, Udala, Ula edo Uhula, Zornoztegi eta Zumalburu.

Ikusten dugunez, azken mendeetan Lautadan euskararen erabileran izandako urripena ez da suntsiketa bihurtu, eta hor zaudete zuok guztiok mendeetako urritze prozesu horri buelta ematen kemen osoz lan eginez. Euskara barra-barra erabiltzea ez da bat-bateko lorpena izango, eragin prozesu luzea baizik, baina hala eta ere berreskuratze aldi hau galerarena bezain luze ez zaigula gertatuko esperantzan gabiltza.

Gaurko Aguraingo biztanleak ez dira XIX.ekoen berdinak. Gaurko aguraindarrak edo salbaterrarrak (Joan Perez Lazarragakok zioen bezala) hemendik, hortik eta handik etorritako biztanle ditugu. Eta orain erkaketa bat, konparazio bat egitera ausartuko naiz. Landare eta gizakien erkatze sinbolikoa noski, izaki diferenteak izan arren biek dituzte erroak, sustraiak, sentipenean badira ere gizakiaren kasuan.

Goazen adibidera: hemen bertan, Lautada Ikastola honetako atari ondoan bost landare nagusi, bost arbola heldu ditugu babesle: bi gertuenak inguru hauetako eta Europa osoko hagina eta lizarra dira, sarreraren ezker-eskuin, biak sendo eta zabalak; haginaren ondoan topatzen dugu Andaluziako Elurretako mendizerran hazten den pinsapo izeia, hortxe hesi ondoan aspaldi landatu eta gaurko egunean atariko bost arbolen artean ederrena egin zaiguna, pinsapoa alegia. Pinsapotik harantzago dauden azken bi arbolak Europako izei gorriak dira. Hemendik gertu, Zalduondoko Perretano baserriko mendi magaletan, Lautada zelaiak maldatuz menditan bihurtzen hasten diren lehenengo malda horietan pinsapo izeidi eder bat topatzen dugu, orain 80ren bat urte landatutakoa; izeidi hori seguru aski eta Pirinioetako izeidi naturalak kenduta, Euskal Herrian aurki genezakeen izei izeidi zabal eta politena zaigu gaur (izei izeidi diodanean *Abies Genus* edo generoko izeiek osatutako izeidia esan nahi baitut. Badira Douglas izei eta izei gorrizko baso zabalak gure herrian, baina ez *Abies* generokoak, Leitzalarrekoak izan ezik).

Aguraingo hiri zaharrean bertan, eta Zapatari kalean dagoen Klaratarren etxekeo jardin edo lorategian bost azikulazko kanpoko pinu lirain eta eder bat ikusten dugu kaletik; harresi baten ostean dago eta pinuaren goiko partea ikusten dugu soilik kaletik begiratuta; pinu hori gazte samarra da oraindik, baina arbola lerdena eta ikusgarria zaigu benetan.

Eta hori, arbola horien kontua, zertara datorkigu ba honoko egun honetan? Honetara dator: Gizartearen edertasuna indartzera datorkigu aberastasun,

aniztasun hori guztia. Gure ingurua alor askotan aniztu dugu eta ahal izan dugun neurrian edertu ere bai. Hizkuntzak era berean aberastu dira azken mendeetan, gizartearen pentsakeraren osatze eta zabaltze prozesu luze baten ondorioz. Eta honela hazitako hizkuntza horien artean gurea ere hor daukagu. Gurea dugun euskara hau altxor aberastua daukagu gaur, alboko hizkuntza askorekin harreman hestuan.

Altxor aberastu hori, ele bizi hori, horren erabileraz zaindu nahi dugu. Hizkuntza, mintzaira, idazten eta mintzatzen, hitz egiten, erabili behar dugu. Ahalegin horietan Ikastolak funtsezko erakundeak dira. Gaur zuek, Lautada Ikastolako kide guztiak eredu zatzaizkigute. Hori horrela izanda, Araba Euskarazko aurtengo ospakizun honetan eta aurrean ere, zuekin guztiekin batera, erabil dezagun euskara gogo biziz.

Agurainen, 2010eko ekainaren 20an,

Manuel M. Ruiz Urrestarazu
Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaria